

EIBARREN AUTOBUS ZERBITZUAREN ALDAKETA TXINBERA LAGUN-TALDEAREN 20. URTEMUGAREN OSPAKIZUNA DELA ETA

Euskotrenek larunbateko, ekainaren 8ko, 12:00etatik aurrera DB02 Ermua-Donostia eta DB04 Mallabia-Ondarroa lineetako Lurraldebus zerbitzua, eta baita Udalbus udal zerbitzua ere aldatu egingo ditu, Txinbera Lagun-taldearen 20. Urtemugaren ospakizuna dela eta.

Ospakizun horrek Eibarko erdigunea oinezkoentzat bihurtzea ekarriko du larunbateko, ekainaren 8ko, 12:00etatik igandeko, ekainaren 9ko, 22:00ak arte. Hori dela eta, Lurraldebusen DB02 Ermua-Donostia (AP-8) eta DB04 Mallabia-Ondarroa zerbitzuko autobusak asteburuetan bezala ibiliko dira.

Eibarko udal zerbitzuaren kasuan, Udalbus, bihar larunbateko, ekainaren 8ko, 12:00etatik aurrera kendu egingo da. Hain zuzen ere, larunbat goizetan kendutako ohiko zerbitzuak, honako hauek izango dira:

- **Amaña-Azitain**: irteerak 12:00etan eta 12:40an.
- **Azitain-Amaña**: irteerak 12:20an eta 13:00ean.

Informazio gehiago behar duten erabiltzaileek Euskotrenen 944 333 333 telefono zenbakia erabil dezakete. Konpainiaren www.euskotren.eus webgunean eta twitterreko [@euskotrenEJGV](https://twitter.com/euskotrenEJGV) gunean ere jaso dezakete informazioa.

Igorpen data: asteazkena, 2019ko ekainaren 5a

Euskadi, auzolana, bien común

